

Euskal Autonomi Elkarteko Xedapen Orokorrak Disposiciones Generales del País Vasco

**BARNE SAILA,
INDUSTRIA ETA MERKATARITZA SAILA,
NEKAZARITZA ETA ARRANTZA SAILA,
GARRAIO ETA HERRILAN SAILA,
HIRIGINTZA, ETXEBIZITZA
ETA INGURUGIRO SAILA.**

1906

157/1990 DEKRETUA, ekainaren 5koa, Meteorologi Euskal Batzordea sortzen duena.

Abenduaren 18ko 3/1979 Lege Organikoz onartutako Euskal Herrirako Autonomi Estatutuak, bere 10.32 atalean, Euskal Autonomi Elkartearen eskuduntza eksklusibo bezala ezartzen du «Euskal Herriko Meteorologi Zerbitzua, Konstituzioaren 149.1.20 artikulua erabakiari kalterik egiteke».

Estatutuak eskurantzza hau egin eta gero, Jaurlaritzako Sailak sortarazi eta birregituratu, eta Jaurlaritzaren egitekoak eta ihardutze-alorrak zehazten zituen martxoaren 11ko 27/1987 Dekretuak, Garraio eta Herrilan Sailaren ihardutze-alor bezala ezartzen du Meteorologi Zerbitzua.

Dekretu hau Garraio eta Herrilan Saila organikoki egitaratzen duen maiatzaren 5eko 156/1987 Dekretuak osatzen du, aipatutako alorreko zuzendaritza eta koordinaketa Garraio Sailordetzari, eta honen barruan, meteorologiaren alorreko iragarpen, azterlan eta informazioa Garraio Zuzendaritzaren eskutan utziz.

Eskuduntza hau garatuz, Meteorologiaren alorreko Ihardutze-Planaren idazketa emaitzat izan duten zenbait ekintza burutu dira Garraio Zuzendaritzaren aldetik; Plan honetan, Meteorologi alorreko informazio gero eta eskatuagoa hobeto lortzeko helburua duten zenbait ekintza, eta gaurregun gure Autonomi Elkartean dauden beharren azterketa ezartzen dira.

Autonomi Elkarteko administrazioen eremuaren barruan doakien kopurua zabala izanik, eta dagozkien eskuduntzak era egokian burutu ditzaten, Meteorologia bezain garrantzitsua den alor bateko ihardunen eraginkortasunak, aipatu Planean jasotako ekintzen artean, koordinaketa Batzordea sortu beharra nabarmendu arazi du; honetan, meteorologiari buruzko informazio ahali, eta onena lortzean zuzeneko interesa ageri duten sailak sartzen dira, etorkizunean Meteorologi Euskal Zerbitzuaren ohizko erabilzaile bilakatuko direnak, hain zuzen.

Horiek horrela, Barne, Industria eta Merkataritza, Nekazaritza eta Arrantza, Garraio eta Herrilan, eta Hirigintza, Etxebizitza eta Ingurugiro Sailburuen proposamenez, eta Jaurlaritzako Kontseiluak 1990.eko ekainaren 5eko bileran aztertu eta onartu ondoren, honako hau,

**DEPARTAMENTOS DE INTERIOR,
DE INDUSTRIA Y COMERCIO,
DE AGRICULTURA Y PESCA,
DE TRANSPORTES Y OBRAS PUBLICAS,
Y DE URBANISMO, VIVIENDA
Y MEDIO AMBIENTE**

1906

DECRETO 157/1990, de 5 de junio, por el que se crea la Comisión Vasca de Meteorología.

El Estatuto de Autonomía del País Vasco aprobado por Ley Orgánica 3/1979, de 18 de diciembre, en su artículo 10.32, establece como competencia exclusiva de la Comunidad Autónoma del País Vasco el «Servicio Meteorológico del País Vasco, sin perjuicio de lo dispuesto en el artículo 149.1.20 de la Constitución».

Realizada esta atribución por la norma estatutaria, el Decreto 27/1987, de 11 de marzo, sobre creación, reestructuración de Departamentos y determinación de funciones y áreas de actuación del Gobierno, regula como área de actuación del Departamento de Transportes y Obras Públicas el Servicio Meteorológico.

Este Decreto, se complementa con el Decreto 156/1987, de 5 de mayo, sobre estructura orgánica del Departamento de Transportes y Obras Públicas, que asigna la dirección y la coordinación en la citada área de actuación a la Viceconsejería de Transportes, y, dentro de la misma, se atribuye la competencia sobre la predicción, estudio e información en el área de la meteorología a la Dirección de Transportes.

En desarrollo de esta competencia se han realizado una serie de actividades por parte de la Dirección de Transportes que han culminado en la redacción de un Plan de Actuación Meteorológico, que incluye una evaluación de las necesidades que actualmente existen en nuestra Comunidad autónoma y una serie de actuaciones tendentes a mejorar la obtención de la información meteorológica para satisfacer la demanda creciente de dicha información.

La eficacia de las actuaciones en un campo tan importante como la meteorología, con un abanico de interesados muy amplio dentro del ámbito de las administraciones de la Comunidad autónoma para la correcta ejecución de las competencias que tienen atribuidas, ha determinado que destaque, entre las actuaciones contempladas en el citado Plan, la necesidad de la creación de una Comisión de coordinación, en la que se incluyan a los sectores directamente interesados en la obtención de la óptima información meteorológica y que se convertirán en un futuro en usuarios habituales del Servicio Vasco de Meteorología.

En su virtud, a propuesta de los Consejeros de Interior, de Industria y Comercio, de Agricultura y Pesca, de Transportes y Obras Públicas y de Urbanismo, Vivienda y Medio Ambiente, previa deliberación y aprobación del Consejo de Gobierno en su reunión celebrada el día 5 de junio de 1990,

XEDATU DUT:

1. *atala.*— Meteorologi Euskal Batzordea sortzen da, Garraio Sailordetzaren pean, meteorologiaren arloan euskal herri-administrazioen koordinaketa eta aholku ihardutze-sail bezala.

2. *atala.*— Honako hauek izango dira Meteorologi Euskal Zerbitzuaren egitekoak:

a) Euskal Autonomi Elkarteko herri-administrazioen pean dauden sail eta ihardutze-sail ezberdinek dituzten meteorologi alorreko informazioaren beharraz aztertzea, Garraio eta Herrilan Sailak, bere ihardutze planetan kontutan izan ditzan.

b) Helburu ezberdinetarako meteorologi alorreko datuen lortze eta erabileran interesa ageri duten erakundeen arteko elkarlaneko eman daitezkeen erak finkatu eta proposatzea.

c) Meteorologiarekin zuzeneko lotura duten edo eguraldiari edo klimari buruzko informazioa beharrezko duten ekintzak garatzeko baliabide berberen erabilera bideratzea.

d) Euskal Autonomi Elkarteko eremuan Meteorologiaren alorreko lan, azterketa eta txostenak burutu daitezkeen bideak proposatzea.

e) Eskatzen zaizkien txostenak ematea.

f) Meteorologiaren alorreko ekintzen arteko koordinaketa bultzatzea.

3. *atala.*— Honako hauek osatuko dute Meteorologi Euskal Batzordea:

a) Lehendakaria Garraio Zuzendaria izango da, eta hau kanpoan izanez gero, Meteorologi Euskal Zerbitzuaren arduradunak ordezkatu ahal izango du bere egitekoetan.

b) Bokalak honako hauek:

— Barne Saileko bi ordezkari, bat Herri Babeseko Zuzendaritzakoa, eta Herritarren Segurtasunerako Koordinazio Zuzendaritzakoa bestea.

— Energiaren Euskal Entearen ordezkari bat.

— Nekazaritza eta Arrantza Saileko bi ordezkari, Nekazaritza Sailordetzako bat eta Arrantza Sailordetzakoa bestea.

— Garraio eta Herrilan Saileko hiru ordezkari, hauetako bat Meteorologi Euskal Zerbitzuko ardurduna izango delarik, Lehendakaria ordezkatzeko diharduenean izan ezik.

— Hirigintza, Etxebizitza eta Ingurugiro Saileko bi ordezkari, Ingurugiro-Baliabide Zuzendaritzakoa bat eta Ingurugiroaren Kalitate Zuzendaritzakoa bestea.

— Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako Foru Aldundi bakoitzeko ordezkari bat.

4. *atala.*— Batzordearen Idazkari bezala, hitzaz eta boturik gabe, Garraio Zuzendaritzako teknikari batek ihardungo du.

5. *atala.*— Batzordeak bidezkoa deritzanean, meteorologiaren alorrean interesa duten gainontzeko sail, administrazio, ihardutze-sail edo erakundeetako ordezkariak, edo gaiaren ezagutzagatik komenigarritzat hartzen dituen pertsonak gonbidatu ahal izango ditu batzarretara.

DISPONGO:

Artículo 1.— Se crea la Comisión Vasca de Meteorología, que queda adscrita a la Viceconsejería de Transportes, como órgano de coordinación y asesoramiento de las administraciones públicas vascas en materia de meteorología.

Artículo 2.— La Comisión Vasca de Meteorología tendrá como funciones:

a) Estudiar las necesidades de información meteorológica para los distintos departamentos y organismos dependientes de las administraciones públicas vascas, con objeto de que sean tenidos en cuenta por el Departamento de Transportes y Obras Públicas en la preparación de sus planes de actuación.

b) Determinar y proponer los posibles modos de colaboración entre los organismos interesados en la obtención o uso de datos meteorológicos para las diversas aplicaciones.

c) Facilitar la utilización de medios comunes en el desarrollo de actividades relacionadas directamente con la meteorología o que precisen de información sobre el tiempo atmosférico o el clima.

d) Proponer fórmulas para potenciar, dentro del ámbito de la Comunidad autónoma, la realización de trabajos, estudios y ponencias en el área de la meteorología.

e) Emitir los informes que le sean solicitados.

f) Fomentar la coordinación de las actividades en el campo de la meteorología.

Artículo 3.— La Comisión Vasca de Meteorología estará compuesta por:

a) El Presidente, que será el Director de Transportes, pudiendo delegar sus funciones, en caso de ausencia, en el responsable del Servicio Vasco de Meteorología.

b) Los siguientes vocales:

— Dos representantes del Departamento de Interior, uno por la Dirección de Protección Civil y otro, por la Dirección de Coordinación de la Seguridad Ciudadana.

— Un representante del Ente Vasco de Energía.

— Dos representantes del Departamento de Agricultura y Pesca, uno por la Viceconsejería de Pesca y otro, por la Viceconsejería de Agricultura.

— Tres representantes del Departamento de Transportes y Obras Públicas, uno de los cuales será el responsable del Servicio Vasco de Meteorología, salvo cuando actúe como Presidente por delegación.

— Dos representantes del Departamento de Urbanismo, Vivienda y Medio Ambiente, uno por la Dirección de Recursos Ambientales y otro, por la Dirección de Calidad Ambiental.

— Un representante por cada una de las Diputaciones forales de Alava, Bizkaia y Gipuzkoa.

Artículo 4.— Actuará como Secretario de la Comisión, con voz y sin voto, un técnico de la Dirección de Transportes.

Artículo 5.— Cuando la Comisión lo estime oportuno, podrá invitar a las reuniones a los representantes de otros departamentos, administraciones, organismos o entidades interesados en el ámbito de la meteorología, así como a aquellas personas que considere conveniente por su conocimiento en la materia.

6. atala.— Gutxienez sei hilabetetik behin bilduko da Batzordea, aurrez Lehendakariak deituta.

7. atala.— Meteorologi Euskal Batzordea Administrazio Prozeduraren Legearen I. Idazburuaren II. Atalburuan oharmandakoari atxekiko zaio bere ihardunean.

AZKEN XEDAPENAK

Lehenengoa.— Garraio eta Herrilan Sailburuari esku ematen zaio Dekretu hau garatu eta aplikatu ahal izateko beharrezkoak diran xedapenak eman ditzan.

Bigarrena.— Dekretu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitara dadin egunaren biharamunean jarriko da indarrean.

Gasteiz, 1990.eko ekainak 5.

Lehendakaria,
JOSE ANTONIO ARDANZA GARRO.

Barne Sailburua,
JUAN LASA JAUREGUI.

Industria eta Merkataritza Sailburua,
RICARDO GONZALEZ ORUS.

Nekazaritza eta Arrantza Sailburua,
JOSE MANUEL GOIKOETXEA ASKORBE.

Garraio eta Herrilan Sailburua,
PEDRO RUIZ DE ALEGRIA ROGEL.

Hirigintza, Etxebizitza eta Ingurugiro Sailburua,
JOSE MIGUEL MARTIN HERRERA.

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA

1907

152/1990 DEKRETUA, maiatzaren 22koa, Euskal Autonomi Elkarte Lanbide Hezkuntzako Ikastetxeetan Teknologi Berrikuntzarako egitarauak garatzeko diren dirulaguntzen erregimen orokorra finkatzen duena.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak, beste erakunde publiko eta pribatu batzuekin batera, hainbat proiekturi ekin die arestian, horien helburua, enpresa-alorreko sektoreak irakaskuntza tekniko-profesionaletan partehartzea delarik.

Orain arte erabilitako formulen tipologia askotarikoa da, hala irakas-irakunde pribatuak sor ditzake nola Administrazio Publiko, enpresari Elkarte eta Administrazio Autonomoen arteko hitzarmenak izenpetu.

Bada ezaugarri bat proiektu guztiekiko amankomuna dena, bi alditan burutu behar direla alegia, batean eraikuntza berriak egin beharko dira edo egon daudenak bereoneratu, bestean, ordea, egitura juridiko egonkorak sortuko dira, berdin diola nortasun juridikorik duten edo ez, horren helburua, enpresa-

Artículo 6.— La Comisión se reunirá, previa convocatoria de su Presidente, al menos una vez cada semestre.

Artículo 7.— La Comisión Vasca de Meteorología ajustará su actuación a lo dispuesto en el Capítulo II del Título I de la Ley de Procedimiento Administrativo.

DISPOSICIONES FINALES

Primera.— Se autoriza al Consejero de Transportes y Obras Públicas para dictar cuantas disposiciones sean necesarias para el desarrollo y aplicación de este Decreto.

Segunda.— El presente Decreto entrará en vigor al día siguiente de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Dado en Vitoria-Gasteiz, a 5 de junio de 1990.

El Lehendakari,
JOSE ANTONIO ARDANZA GARRO.

El Consejero de Interior,
JUAN LASA JAUREGUI.

El Consejero de Industria y Comercio,
RICARDO GONZALEZ ORUS.

El Consejero de Agricultura y Pesca,
JOSE MANUEL GOIKOETXEA ASKORBE.

El Consejero de Transportes y Obras Públicas,
PEDRO RUIZ DE ALEGRIA ROGEL.

El Consejero de Urbanismo, Vivienda y Medio Ambiente,
JOSE MIGUEL MARTIN HERRERA.

DEPARTAMENTO DE EDUCACION, UNIVERSIDADES E INVESTIGACION

1907

DECRETO 152/1990, de 22 de mayo, por el que se establece el régimen general de subvenciones destinadas a desarrollar programas de renovación tecnológica en Centros Docentes de Formación Profesional de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

Recientemente el Departamento de Educación, Universidades e Investigación, junto con otras instituciones públicas y privadas, ha puesto en marcha proyectos que tienen por finalidad la participación del mundo empresarial en las enseñanzas técnico-profesionales.

Las fórmulas utilizadas hasta ahora presentan una tipología variada que va desde la creación de una Fundación docente privada hasta la suscripción de convenios multilaterales entre la Administración Autónoma y otras Administraciones Públicas y Asociaciones empresariales.

En cualquier caso, la característica que presentan en común estos proyectos es que en todos ellos es necesario acometer dos fases, la primera consistente en la realización de obras de primera construcción o remodelación de edificios y la segunda en la creación de estructuras jurídicas estables, dotadas o no de